

Gobernu Salak, bere ardurapean dauden epaitegi eta auzitegien funtzionamendua antolatzeko eskumen zabalak ditu eta funtzio hauen artean ondoren aipatzen diren hauek aurkitzen dira:

- Aipatautako organo judizial hauen epaile eta magistratu titularren plaza edo lanpostuak egoki beteak egotea egiaztatzea.
- Justizia administrazioari buruz herritarrek mahaigaineratzen dituzten keak aztertu.
- Prozesu judizialetan parte hartzen dutenei, epaileek inposatzen dizkieten zigorrak berrikusi.
- Lehendakariari ikuskatze bisitaldiak proposatu.
- Beste administrazio publikoekin harreman instituzionalak mantendu, Justizia administrazioaren funtzionamendua hobetzeko asmoz.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari zuzendutako ikerketak eta proposamenak egin.
- Magistratu eta epaileekiko diziiplina eskumenak gauzatzea.